

2014ko UHOLDEAK
307/2005 Errege Dekretua
(laguntzak eskatzeko azken eguna: 2014/08/04)

**FAMILIA EDO BIZIKIDETZA UNITATEENDAKO LAGUNTZAK
ETXEBIZITZETAN ETA TRESNETAN IZANDAKO KALTE MATERIALAK
ARINTZEKO**

XEDEA

1. Ohiko etxebizitza guztiz hondatzea. **Gehienez ere: 15.120 €**
2. Ohiko etxebizitzaren egitura ukitu duten kalteak. **Kalteen ehuneko 50, balorazio teknikoaren arabera, eta gehienez ere 10.320 €**
3. Ohiko etxebizitzaren egitura ukitu ez duten kalte arinagoak. **Kalteen ehuneko 50, balorazio teknikoaren arabera, eta gehienez ere 5.160 €**
4. Behar-beharrezkoak diren etxeko tresnak hondatzea edota haietan kalteak izatea. **Tresnak birjartzearen edo konpontzearen kostua, eta gehienez ere 2.580 € izanen da.**

ONURADUNAK

Diru-laguntzak horiek jasotzen ahalko dituzten **familia unitateen** urteko diru-sarrerara garbi guztiak gehienez ere izanen dira hemen azpian ageri diren zenbatekoen adinakoak, betiere gertaera eragilearen aitzineko 12 hilabetei dagozkien diru-sarrerak izanen dira edo, bertzenaz, gertaera eragilearen aitzineko azken urtealdiari dagozkionak:

Familia unitatearen kide kopurua	Diru-sarrerak gehienez ere¹ (laguntzaren % 100)	Diru-sarrerak gehienez ere² (laguntzaren % 50)
Kide 1 edo 2	10.437,20 €	26.092,99 €
3 edo 4 kide	13.419,25 €	33.548,13 €
4 kide baino gehiago	16.401,31 €	41.003,27 €

¹ Zutabe horretan ezarritako diru-sarrerak gainditzen ez dituzten familia unitateek eskubidea izanen dute arestian adierazitako laguntzaren % 100 jasotzeko

² Zutabe horretan ezarritako diru-sarrerak gainditzen ez dituzten familia unitateek eskubidea izanen dute arestian adierazitako laguntzaren % 50 jasotzeko

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

(Jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak)

- 1.-Eskabide-eredua
- 2.- Titularitatearen eta ohiko egoitzaren frogagiria
(IBI/ Salerosketa agiria/ Katastroko Lurralde Gerentziaren ziurtagiria)
- 3.-**Baldin badago**, aseguruaren datuak eta, bere kasuan, jasotako zenbatekoak
Kalte-ordaina zure aseguru-etxeari edo Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoari eskatu badiozu, jasotako edo jasotzekoa duzun zenbatekoaren frogagiriak aurkeztu beharko dituzu.
- 4.- Erroldatze ziurtagiria, gertakariak non gertatu diren eta herri horretako Udalak luzatua.
- 5.-Bizikidetzaren ziurtagiria.
Gertakariak non gertatu eta herri horretako Udalak luzatua; ziurtagirian agertu beharko dute hondaturiko etxebizitzan bizi diren pertsona GUZTIEK.
- 6.-Eskatzailearen eta familia-guneko kideen NANA, edota AIZa (atzerritarren identifikazio zenbakia), atzerritarrak badira.
- 7.-Kalteen balorazioa (Partzuergo/Udala).
Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoaren txostena edo Udaleko Zerbitzu Teknikoen txostena, honakoa adierazita: gertaeraren data, etxebizitzaren helbidea, gertaera eragilearen eta eragindako kalteen arteko zuzeneko loturari buruzko erabakia, eta kalteen balorazioa, betiere kalte-ordainaren kontzeptu bakoitzaren arabera aurrekontua azalduta, kalteak non gertatu diren zehaztuta, eta era berean, kalteak egiturazkoak diren ala ez adierazita.
- 8.-Familia unitatearen datuak eta diru-sarrerak azken urtean (NAN/PFEZ)
PFEZ. PFEZaren aitortze egiten ez bada (azken hamabi nominak edo enpresa-ziurtagiri, edo INEM erakundearen ziurtagiria, non aitortze hamabi hilabetean jasotako prestazioak agertuko baitira).
- 9.-Minusbaliotasunen ziurtagiria (halakorik bada)
- 10.- PRE/1576/2002 2. Aginduaren eranskina
Estatuko Administrazio Orokorraren obligazioak ordaintzeko prozedura. (Eskatu kopia udalean).

Oharra: Eskaera Gobernuaren Ordezkaritzan (Iruñean) edota Baztango Udalean erregistratu daiteke.

Eskaera erregistratu eta 6 hilabete igarotzen badira erantzunik gabe, eskaera ukatu dutela ulertu beharko da.

